

Milaka langilek gure hitza errespetatua izan dadin aldarrikatu dugu

Milaka euskal langile bildu gara Gasteizko kaleetan gure haserrea adierazi eta argi uzteko dugu ez dugula iruzurrik onartuko. Uztailaren 22an, Eusko Jaurlaritzak, Confedebaskek eta CCOO eta UGTk sinatu zituzten negoziazio kolektiborako eta elkarriketa sozialaren instituzionalizazioaren inguruko akordioak patronalaren aldekoak dira eta euskal langileei bizkar ematen die. Horregatik hain zuzen ere Gasteizen elkartu garenok norabide aldaketa exigitu diogu Jaurlaritzari.



Gasteizko mobilizazioaren irudi bat.

Beste behin, Urkulluren Gobernuak iruzur egin dio euskal langilegoari. Euskal Esparruaren aldeko akordioa dela dioten arren, praktikan kontrako norabidean doaz. Erabaki antidemokratikoa izateaz gain prekarietatean sakontzeko beste bide bat da honako hau. Gehiengo sindikala baztertuz egindako akordio honek ondorio larriak izango ditu euskal langileriarentzat.

Egoeraren larritasunak mobilizatzea eskatzen du eta horretara goaz. Gaur agerian geratu da langileok ez dugula isilik geratzeko asmorik eta kalera aterako ditugula gure aldarrikapenak. Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren alde egingo dugu. Era berean, negoziazio kolektiboa, eredu propio baten oinarrietako bat izanki, estatalizazioaren aurka blindatu behar dugu. Gaurkoa lehen hitzordua baino ez da izan, lan munduaren aldaketa eragotzi nahi duen Jaurlaritzak aurrean izango gaitu.

LABeko Idazkari nagusiaren adierazpenak ikusteko, klikatu [hemen](#).

Mobilizazioaren irudiak ikusteko, klikatu [hemen](#).